

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

297 - 2021eko abendua

HEGOAK
EBAKI DIZKIOTE

Arotz-Enea

Masena, et sartu dola gila
Ekerreli alba.

Por Txara, no pise no Ramar
Gracias.

Arotz-Enea



Nahi duzu...

Eraldatu?
Kudeatu?
Berritu?
Ekin?
Planifikatu?
Hazi?
Ikasi?
Sortu?

Merkatari izan nahi duzu?

Maite bezala, zu ere merkatari izan zaitezke,
bisitatu merkataritza.nafarroa.eus eta lehen urratsa
ematen lagunduko dizugu.

MAITEREN
ISTORIOA EZAGUTU

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzia eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Lekunberriko Udala, Cerdana Garalur, Ondare Kultur Taldea, Jubiloteka, Bertsozale elkarteak, Ttutturre kirol elkarteak, Larraungo Pilota elkarteak, Mari-txu Arangoak.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Abenduko zorion agurrak.

08

ELKARRIZKETA



Jabi Saralegi.

12

IZAN GAZTE Aurre-begirale izateko titulua.

14

BATZARRE Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna.

16

ERREPORTAJEA



Ateak itxi ditu Arotz Eneak.

22

ERREPORTAJETXOA Azken herrietako festak.

28

PLAZATIK PLAZARA Lekunberri On plana.

31

AGENDA





Eneko Otamendi Irazoki
Abenduaren 10ean, 7 urte.
*Zorionak, txapeldun!
Ongi pasa zure egunean eta
muxu handi bat etxekoen
partetik.*



Alain Castillo Cruz
Abenduaren 1ean, 16 urte.
Zorionak Atallutik! Aupa Alain!



Manex Mitxelorena Eskamendi
Abenduaren 13an, 5 urte.
*Zorionak etxeko txikiari, eta ongi
pasa! Muxu bat etxekoen partez.*



Iria Soria Iriarte
Abenduaren 8an, urte 1.
*Zorionak etxeko ttikienari! Zein
maitakor eta politte zaren, pottokita!
Egun zoragarria pasa dezazula, eta
muxu potoloak familia osoaren partez.
Asko maite zaitugu.
Aita, ama eta Luka.*



Enaitz Iriarte Olano
Abenduaren 19an, 7 urte.
*Zorionak! Ongi-ongi pasa zure
egunean. Etxekoen partez,
zazpi muxu potolo.*

Urko Tolosa Iraola
Azaroaren 10ean, 9 urte.
June Tolosa Iraola
Abenduaren 14ean, 12 urte
*Zorionak, bikote! Asko maite
zaituztegu.
Besarkada eta muxu potolo
bana etxekoen partez.*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



ARROKA BAT LEZAETAKO ERREPIDEAN

Arroka handi batek Lezaetatik igarotzen den NA-1300 errepidea moztu zuen ordu batzuez. Menditik erori zen, eta, zorionez, ez zen istripurik izan eroriko horren ondorioz. Herri Lanetako Saileko Errepideen Zerbitzuari eskatu zion Foruzaingoak arroka kentzeko. Hainbat aste eman ditu arrokak errepide bazterrean.



LEKUNBERRI HERRI TURISTIKORIK ONENEN ARTEAN

UNTWO Munduko Turismo Erakundeak Lekunberri izendatu du Herri Turistikorik Onena sarirako. Helburua da turismoaren bidez kultura eta tradizioak gordetzen dituzten herriak aitortzea. Halere, aldaketak ez dira guztien gustukoak izan: ibaiko sastrakak garbitzeko lanek polemika piztu dute, eta alde zaharreko aldaketek ere.



EUSKARALDIA.

2022KO EUSKARALDIA GORPUZTEN

Hitzez ekiteko garaia lelopean egingo dute hirugarren Euskaraldia, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra. Hizkuntza ohiturak aldatuz, herritarrek *belarriprest* eta *ahobizi* rola hartu ahalko dituzte. Entitateek *ariguneak* osatuz parte hartu ahal izango dute. Hizkuntza ohiturak aldatzeko, herritarrek tresna eraginkorragoak izatea izango da lehentasuna.

5

► Jon Otermin (Betelu)



*Abendu hotza gainean dugu
eta harekin negua
Eman diezaioun merezi duen
ongi etorri estua
Batzuentzat laburra
besteentzat xamurra
ez da denontzat berdina
Ni behintzat hasia nago jada
udako oporrei begira*

*Uda baino lehen bada ordea
beste urtaro nahasia
Egin dezake eguzki elur
baina gehienbat euria
Ordua aldatzen da
eguna luzatzen da
hori denon gustokoa
Udakten koloretsuarekin
doa nire azken bertsoa.*

Doinua: *Iparragirre abila dela*. Hurrengoa: Kemen Aldabe (Lekunberri).

“ELKARBIZITZARAKO. BAKERA. ETXERAKO BIDEAN” LELOPEAN BILBOKO KALEAN BERRIRO ERE MILAKA PETSONEN ALDARRIAZ BETE ASMO DITU SAREK DATORREN URTARRILAREN 8AN

Urriaren 23an aurreratu genuen moduan, urtarrileko manifestazioa 8an (larunbata) izango da ikastute honetan. Eta, gaur, pozik jakinarazten dizuegu Bilbora itzuliko garela, eta Euskal Herrian egiten den manifestaziorik jendetsu eta zabalena 17:00etan abiatuko dela La Casilla plazatik.

Aurten, milaka eta milaka pertsona biltzea espero dugu “Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako BIDEAN” lelopean. Lelo honekin adierazi nahi duguna zera da; bizikidetzarako eta bakerako bidea egiten ari garela, etxerako bidea egiten ari garela.

Hala egiten ari garela uste dugulako. Argi dugulako orain ate eman ditugun urrats guztiak beste pausu bat direla bide horretan. Bizikidetzaz ezinezkoa delako euskal presoek aplikatzen zaien salbuespen-legeriak eragindako eskubide-urraketa desagertzen ez bada. Eta, etxerako bidea egiteko, espetxe-politikan hain beharrezkoa den erabateko aldaketa sustatzeko, funtsezkoa delako bizikidetzaren eta bakearen bidean aurrera egitea. Biak ala biak, elkar lotuta doaz.

Elkarrekin gaude bide horretan aurrera egin nahi dugun guztiak, sufrimendua desagerrarazi nahi dugun guztiak, eskubideen urraketa behin betiko amaitzea nahi dugun guztiak, eta konfrontazioaren aroa atzean utzi nahi dugun guztiak. Elkarrekin egiten ez badugu, bakoitzak bere aletxo jarrita, erantzukizunez eta errespetuz, eta, batez ere, aurrera egiteko gogoia argi adierazita, ezinezkoa izango baita.

Saretik behin baino gehiagotan esan dugu positiboki baloratzen dituela azken urte honetan egin diren aurrera urratsak. Izan diren, presoek hurbilketak, dukarik gabe, senideen zama arintzea ekarri du presoak bisitatzekeo distantzia luzeak murriztean, baina ez dezagun ahaztu gaur egun 104 preso daudela oraindik ere EHTik

urrun, eta honela haien eta haien familien eskubideak urratzen dituztela.

Ez dezagun ahaztu, ezta ere, % 94k bigarren graduan jarraitzen duela, eta 10 baino ez direla hirugarren graduan dauden presoak, egoera horretan 70 preso egon beharko lirakeenean, eta horietatik 52k esku-bidea dute jada baldintzapeko askatasunean egoteko. Preso horien % 90ek espetxe-baimenak izateko aukera izan beharko luke, horretarako zigorraren dagokien zatia beteta dutelako.

Guzti horri, justiziaren jarrera politikoa eta ideologizatu batzen zaio. Espetxeetako Juntatik gradu-progresiore bat edo espetxe-baimen bat lotzen dutenean, ANK errekurritu, blokeatu eta geldiarazi egiten ditu erabaki horiek.

Atzera eraginezko kasuak ere getartzen hasiak dira: hirugarren gradura igarotako presoak, horri esker kalean baldintzekin direnak, espetxera eta bigarren gradura itzultzera behartuaz.

Hauek adibide batzuk baino ez dira. Horregatik, dei egiten diogu herritar orori urtarrilaren 8an, 17:00etan, la Casillatik abiatuko den manifestazioan parte hartzea.

Mobilizazio hori alderdi politikoekin, sindikatuekin, elkarteekin eta erakundeekin batera egin nahi dugu. Denok batera, elkartuta egin ezean ez dugulako lortuko. Jarrai dezagun bidean. Orain da unea. Urtarrilaren 8a baino lehen, Sarek hainbat topaketa antolatuko ditu arlo juridikoko eta akademikoko adituekin, guzti honi buruz eztabaidatu ahal izateko. Eta urtarrilaren 8an, goizetik, Euskalduna Jauregian, gure herriko ordezkaritza politikoa, sindikal eta sozialarekin elkartuko gara berriro. Horiekin guztiarekin, Sarek gure herriaren etorkizunari buruz egiten duen hausnarketa partekatuko du, bizikidetzan eta errespetuan oinarrituta.

Araitx-Beteluko Sare

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIURU BAR

GTXGKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri

janaridenda

hamabostaldi eskaintza bereziak

CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK

CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

URA LEKUNBERRIN

2013ko maiatzaren 2an Lekunberriko Udalean egindako ezohiko osoko bilkuran, Jose Maria Aierdi Fernandez de Barrena alkate zela (Nafarroako Gobernuko bigarren presidenteordea da gaur egun), doikuntza-plan bat onartu zuten, beren talde politikoaren aldeko botoekin. Plan horretan, 2014tik 2023ra bitarteko aldiaren uraren, saneamenduaren eta hiri-kontribuzioaren tasetan urte-urterako % 2ko igoera jasotzen da, eta hornitzaileei zorra ordaintzeko balioko luke.

Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak 105. artikuluan beren-beregi dio, tasak zehazteko, zuzeneko eta zeharkako kostuak hartuko direla kontuan, finantza-izaerakoak, ibilgetuaren amortizaziokoak eta, hala badagokio, zerbitzuaren arrazoizko garapena bermatzeko beharrezkoak direnak barne.

Hornitzaileekiko zorrak ez zuen zerikusirik urarekin. Bidezkoa al da bizilagunok zor hori ordaintzea ur-tasarekin? Guk ezetz uste dugu, gainera, Foru Legeak argi eta garbi dioenean uraren eta saneamenduaren tasak zerbitzua ordaintzeko erabili behar direla. Duela zenbait hilabete Kontuen Ganberak datu esanguratsu bat eman zuen non azken 4 urteetan udalak 1.100.000 euroko irabaziak izan dituen uraren tasen kontura. Eta guk Kontuen txostenetik jasotako hainbat datuekin egindako azterketa batean, Lekunberriko Udalak 2.000.000 euro inguruko superabita lor zezakeen.

Joan den irailaren 30ean egin zen Lekunberriko udalbatzan, alkateak —Gorka Azpirozek— adierazi zuen Nafarroako Gobernuari laguntza eskatu ziola txosten bat egiteko —uraren kostuen azterketa, hornidura— eta saneamendu-tasak finkatzeko eta, horregatik, justifikatzeko. Txosten hori egitea Kontuen Ganberaren gomendioa da, 231 bizilagunen eskaeraz gain. Azaroaren 12an eskaera bat erregistratu genuen, azaroaren 25ean egingo den hurrengo osoko bilkuran bozkatzeko puntu gisa sartzeko. Eta uraren kostuei buruzko txostenik egin ez denez eta, gainera, uraren eta saneamenduaren tasarekin zorrik ordaindu ezin dela uste dugunez, osoko bilkurari proposatzen diogu, kautelaz, hornikuntza eta saneamendu-tasak 2013ko balioetara murriztea.

Jose Luis Goldarazena Lanz eta Iñaki Ganuza Sanchez

URRATSEZ URRATS

Beste urte bat igaro zaigu dagoeneko eta atzera begiratzerakoan, urtean zehar egindakoari begira jartzeko unea iritsi da.

Hamaika ekitaldi eta ekintza desberdinez gozatzeko aukera izan dugu aurtengoan: Jakoba Errekondoren ja-kintzetatik, herrian zehar eginiko kale eskaladara. Gure gorputzak zaintzen ikasteko masaje tailerretik, musikaz gozatzeko aukera eman diguten kontzertu guztietara. Bizikletan aritzeko eta konpontzeko tailerretik, euskaraz gozatzeko bertso desafioetara. Muxutruken elkartasun ideietatik, euskara eta klase sozialen arteko loturaz hausnartzera. Ezin ere ahaztu urtean zehar Euskal Herrian bizi izan diren desalojoak, horrelako espazioen beharra ezinbestekoa da mundu juxtuago baten bidean.

Bistakoa denez, Printzan eskaini den ekintza eta jardueren eskaintza zabala izan da. Lanerako gogoekin jarraitzen dugu, datorren urtean bide beretik jarraitzeko asmoarekin gabiltza.

Printza



7

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

NEKAZARI, S.L.
 Kubota
 STIHL
 ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
 Tel.: 948504128
 Fax: 948504377
 nekazaris@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
 Ezkontzak
 Ospakizunak
 Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
 20400-TOLOSA 943 577 573
 info@bidegoxo.com

“Artzain gazteak badaude, eta emakumeak dira horietako asko”

Jabi Saralegik orain dela bi urte inguru hartu zuen Gaintzako Martiko gaztandegiaren lekukoa. ‘Malloak’ izena jarri dio Mailoen magalean egiten duen gaztari. Hitz egiteko moduan antzematen zaio bere lanbidea maite duela, eta orain arteko ilusio berarekin segitzea espero du aurrerantzean.

Nolatan hasi zinen artzaintzan?

Beti gustatu izan zait, eta beti bizi izan dut familian. Iruditu zitzaidan orduan zela saiatzeko momenturik egokiena, noizbait saiatzekotan, eta Martikoenea baserrira jotzea okurritu zitzaidan.

Zertan egiten zenuen lan lehen?

Aurrena, oilo granja batean eta pentsu fabrika batean aritzen nintzen; goizean batean eta arratsaldean bestean. Dozena erdi bat urte inguru eman nituen bietan, eta azken urteetan, berriz, erabat pentsutan.

“Beti gustatu izan zait mundu hau, baina ez da erraza hastea”

Zergatik jo zenuen Martiko gaztandegira?

Galdetzea okurritu zitzaidan. Juan Luis Pellejerori erretiroa hartzeko garaia ailegatzen ari zitzaien, adinagatik, eta nire asmoa zein zen azaldu nion. Gustura hartu zuen proposamena, eta holaxe hasi ginen.

Bera ere pozik baten batek erreleboa hartuko ziolako?

Bai. Bertakoa izanda gainera, are gehiago. Beti gustatu izan zait mundu hau, baina ez da erraza hasteko aukera aurkitzea. Hau guztia ere ez da erraza izan, gehienbat izapide kontuak oso zailak direlako, baina bueno.

Noiz hasi zenuten proiektua?

Orain dela bi urteko irailean. Erabakia hartu genuenean, hitz egiten hasi ginen, nola egin adosteko, eta nik urtebetez nire aurreko lanean jarraitu nuen; bitartean dena prestatzen aritu nintzen: ikastaroa egin nuen, beharrezko izapideak... Lana utzi, azken kontuak itxi, eta orduan hasi nintzen. Denbora asko behar da kontu horiek guztiak lortzeko, eta, gainera, hori da zailena.

Nola izan zen hasieran martxa hartzea?

Ongi. Ardiekin erraza izan zen, ohituta nengoelako, eta betiko martxarekin segitzea baino ez zen. Gaztaren kasuan, mundu berri bat zen niretzat. Gainera, mundu zabala

Jabi Saralegiren gaztandegia Gaintzan dago. Arg: Labrit.



da. Baina bera [Pellejero] ondoan edukita, errazagoa izan da, lagundu egin baitit. Gaztak bere prozesua du, hamaika trikimailu dauzka... Egunero esne berarekin gazta bera egiten saiatu arren, ezinezkoa da; beti ez da berdin ateratzen.

Ate asko jo behar izan dituzu gazta saltzeko?

Erraza izan da saltzea, lehengo Martiko gazta erosten zutenek erosten baitute hau ere. Bezero asko berdinak dira. Baina etiketa berria ateratzea nahiko zaila izan zen, Idiazabalen sartzeko baldintza asko bete behar baitira. Dena presaka heldu zen, gazta saltzen hasteko behar genuen guztia prest genuen, baina beharrezko paperak ez ziren ailegatzen. Hilabete beranduago hasi ginen gazta saltzen, eta jendea galdezka ari zen jada. Itxoin beharra genuen. Etiketa egiten hasten zarenan, zuk nahi duzun irudia jartzen diozu, nahi duzun paisaia, baina Idiazabalera eta Argi Gaztara bidali behar duzu. Haiak onartu egin behar dute, bestela ezin zara hasi. Etiketak agertzen diren izkiak handiagoak jartzeko, hobeto irakur dadin, nola jarri... zain egon ginen. Gero, ikuskapena, laginak eraman... hori izan zen zailena. Ondoren, salmentarako tokia jarri genuen.

Zer produktu egiten dituzue?

Gazta mota bakarra egiten dugu. Ez dugu ez gazta ketua, ez beste gazta motarik egiten.

Granjara bertara ere etortzen al da jendea gazta erostera?

Aurretik deituta etortzen dira lehen ere bezero ziren asko. Lehen agian gehiago saltzen zuten horrela, beti egoten zirelako etxean, baina ni askotan ez naiz hemen egoten. Aurretik deituz gero, ordua jarri eta gelditu egiten gara; jende dexente etortzen da horrela. Ulertzen dute



Arkumeak hasiak dira jaiotzen. Arg: Labrit.

ezin dudala erabat hemen egon, eta nire ordutegira moldatzen dira.

Bisitak ere egiten dituzue? Jendeak ba al du interesik granjan?

Kanpotik etortzen den baten bat baldin bada, interesa izan dezake, baina hemengo jendeak ez dauka horrelako jakin-minik. Halere, ez daukagu prestatuta bisitak egiteko. Denbora asko behar duzu horretarako. Hona heldu direnak herri txikitakoak izaten dira, mundu hau ezagutzen dutenak.

Orain dela bi urte inguru hasi zinen. Zer moduz orain arte egindako bidea?

Oraingoz behintzat oso gustura ari naiz. Orainxe bigarren kanpaina ari gara martxan jartzen. Aurrera jarraitzeko gogoz nago. Gogoia eduki beharko dugu, bestela... baina, oraingoz, oso ongi.

Orain dela gutxi hasi zara artzaintzan. Inguruan ba al dago segitzeko prest dagoenik?

Hemen inguruan badira artzaintzan zertxobait aritzen diren gazte batzuk. Niri harritu nauena da Artzai Gazta eta horrelako bileretan edo bilera orokorretan jende gazte asko



Herri sarreran ikus daitekeen kartela. Arg: Labrit.

“Jende asko oso lan lotua delako ez da hasten”



Idiazabal izendapena duten gaztak egiten dituzte. Arg: Labrit.

ikusten dela, artzain gazte asko, eta asko emakumeak dira, gainera. Nik uste dut asko direla artzaintzan aritzen diren gizonen bikotekideak; gizonak artzaintzaz arduratzen dira, eta emakume asko, berriz, horrelako bileretara joateaz eta gazta egiteaz; gaztagintzaren martxa emakumeen eramaten dute. Azken finean, dena ezin du pertsona bakarrak egin. Lan handia da, eta gazta egiteak ere lan handia eskatzen du. Leku askotan, baserrian ere horrela funtzionatu izan du orain arte, eta orain ere horrela gertatzen dela ematen du. Etxeko batek kanpoko batek baino errazago egiten du lan hori, eta konfiantza eskatzen duen lan bat ere bada. Lan honek horixe dauka: lotua da, baina zure askatasuna daukazu, eta zuk nahi duzunean egiten duzu ahal duzuna. Egun hobek eta txarragoak daude, denean bezala.

Zergatik uste duzu animatzen direla gazteak artzaintzan hastera? Laguntzak eta erraztasunak daudelako?

Laguntzak badaude, baina lana oso lotua da, eta nik uste dut jende asko horregatik ez dela hasten artzaintzan. Asteburuetan ez dago jaiegunik, neguan behintzat ez; udaran gehiago izaten dira. Justukoa egiten baduzu ere, egunero egin behar duzu lan. Animalien munduan hala da. Baina nik ikastarua egin nuenean, ikusi nuen lan horretan aritu nahi zuten gazte asko zeudela, eta ikusi dut aurten ere badaudela gazte dexente. Behien kasuan ez hainbeste, baina artzaintzan ematen du jende gehiago dagoela lan egiteko prest.

Artzaintzan lan eginez gero, beharrezkoa da gazta egitea aurrera egiteko?

Nire ustez, ardi esnea salduta ere posible da, baina gazta eginda irabazien alde handiagoa izaten da esne hutsa salduta baino. Oreka bilatu behar da: gazta egitea erabakitzen baduzu, lan handia da, baina irabazia ere handiagoa da. Ez dakit beharrezkoa den gazta egitea, baina esnea soilik salduz gero, litro asko lortu behar dituzu, eta gaztarekin, berriz, litro gutxiagorekin ere molda zaitezke.

Aurrez aurreko salmentan aritu zara inguruan antolatutako diren azoketan. Zer moduz moldatu zara?

Ongi, gustora. Polita da; jendea ezagutzen duzu, eta horrek ere

IORTIA EL INCA ESTRELA - EGURTZ BILKINA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

badu bere xarma. Inguruko jendeak ezagutzen gaitu jada, eta asko hurbiltzen zaizkigu postura. Baina luze egiten zait askotan. Ordu asko egin behar dira bertan, eta bitartean lana izaten dut buruan, egiteko titudan gauza guztiak. Hala ere, egin beharreko zerbait da, azken finean, gazta saldu egin behar baita.

Produktua ezagutarazteko modu bat ere bada, ezta?

Askok ikusi dute marka aldatu zaiola eta produktu berri batekin hasi gara, baina inguruko askok badakiten arren nor garen, beste askok agian ez dakite zehazki gu nor garen, eta horretarako aukera ona da azoka. Mendialdeko azoka asko antolatuta dira azken hilabete hauetan, eta horietako batzuetan izan gara, ez guztietan. Lekunberrin izan zen azkena, eta, hor izateaz gain, Arriben, Latasan, Aldatzen eta Basaburuan ere izan gara. Jende dexente ibili da.

Orain negua ate joka izanik, ardiak etxean dituzue. Nola zabiltzate?

Orain arkumeekin dugu lanik handiena; jaiotzen hasi dira, poliki-poliki. Garai polita da hau. Ikusiko dugu nola saltzen den aurtan arkumea eta zer preziotan... Lana egiten dugu, arkumeak hazten ditugu, baina saltzeko momentura arte beti izaten dugu beldur pixka bat, ez baitakigu nola joango den. Azken urteetan presioa berdintsu egon da, eta saltzen da behintzat. Aurtan udaran garesti egon dela esan dute, baina nik uste dut Eguberrietan betiko prezioan egongo dela arkumea. Orain horixe egin behar dugu: arkumeak jaiotzen dira, horiek edanarazi, gauen jaiki, ardiei erreparatu... Lo gutxixeago egiten dut garai honetan, baina tarreak aprobetxatzen saiatzen naiz deskantsatzeko.

Noiz hasiko zarete ardiak jezten?

Abenduak 18 aldera, eta urtarrilaren erdialdean hasiko gara gazta egiten. Aurreneko esnea saldu egiten dugu, eta gero hasten gara gaztarekin. Maiatza bukaera arte aritzen gara gazta egiten, eta ekainean bi edo hiru egunez, astean hirutan.



Zein da urteko garairik gogorrena?

Niri arkumeak jaiotzen diren garaia gustatu egiten zait. Gogorra da, baina erraz egiten dut, gustatzen zaidalako. Garairik luzeena udaberrian izaten da; gazta egiten dugu, eguna luzeagoa izaten da, kanpoan ere lanen bat edo beste egin nahi izaten dut, eta eguna luzeagoa egiten zait. Neguan ere lan handia izaten da: ardiak jetzi, ukuiluko lanak... baina eguna motzagoa izaten da. Eguna luzatzen hastenean, gainera, ardiak berandu arte egoten dira kanpoan, eta luzeagoa egiten zait. Gazta ere egiten dugu, eta lana pilatzen hasten da.

Ekain hasieran azken gaztak egin, eta ardiak mendira?

Ardiak antzutu, mendira eraman, eta belarretan hasten gara. Eguzkia egiten badu behintzat!

Nola ikusten duzu zeure burua aurrera begira?

Oraingo, ilusioa daukat, eta segitzeko gogo. Ea zer gertatzen den, beti gauza berriak azaltzen baitira: exijentziak, diru laguntzak lortzeko baldintza asko... Geroz eta gehiago estutzen gaituzte alde guztietatik, baina, oraingo, ilusioz nago. Orain arte bezala segituz gero, konforme!

Hainbat azokatan ibili dira aurtan.
Arg: Cederna Garalur.

“Askatasuna duzu: zuk nahi duzunean egiten duzu ahal duzuna”

Eskuratu aurre-begirale titulua!

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak

Gaztea zara eta parte hartzea gustatzen zaizu? Haur eta gaztetxoek begirale izan nahiko zenuke? Lagunekin aisialdian ongi pasatzeko prest zaudete? Aurre-begirale titulua eskuratu nahi duzue? Orain duzue aukera!

Urtxintxa aisialdi eskolaren eskutik, aurre-begirale titulua eskuratzeko ikastaro bat egingo dute Egu-berrietan; abenduaren 18an, 27an, 28an eta 29an izango dira saioak, hain zuzen ere. Leitzan eta Lekunberrin egingo dituzte: bi egunez batean, eta beste bi egunez bestean. 14 eta 17 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago, eta baldintza gisa beharrezkoa da eskualdekoa izatea, alegia, Araizkoa, Betelukoa, Larraungoa edo Lekunberrikoa. Dohainik da, plaza mugatuak dira, eta parte hartzaileek Urtxintxako diploma ofiziala jasoko dute ikastaroa bukatzean. Saioak 9:30etik 14:30era izango dira; azken egunean, berriz, 10:00etatik 18:00etara, bazkaria barne. Abenduaren 14a baino lehen eman behar da izena parte hartu ahal izateko.

▶ HELBURUAK

- ↳ *Gazteen parte-hartzea sustatzea, entzute aktiboaren bidez, elkarrizketarako eta aisialdi osasungarrirako gunek erraztuz.*
- ↳ *Gazte-taldeak mobilizatzeko ekimenak garatzea, tokiko gizarte-egoerari eta egoera globalari emandako erantzunak aztertze eta sortze, botere publikoen erantzukizun eta betebeharre lotuz.*
- ↳ *Gazteen partaidetza zibikorako ekimen berrien sorrera sustatzea, nesken eta mutilen parte-hartze orekatua azpimarratuz eta asoziazionismoa sustatuz.*
- ↳ *Hezkuntza ez-formaleko informazioa eta esperientziak truka daitezela sustatzea, herritar aktibo globalak sustatzeko, beren jardueretan genero-ikuspegia eta ingurumen-irizpideak eta irizpide etikoak txertatuz.*
- ↳ *Gazteak aisialdiko hezkuntzaren munduan hastea, komunitatean integrazteko eta lankidetzan aritzeko baliabide gisa.*
- ↳ *Partaidetza-, hezkuntza-, jolas- eta sormen-prozesuetan esku-hartze komunitarioa inplikatzeko duten gizabanako bakoitzaren jarrerak eta gaitasunak, gaitasunak eta talentuak garatzea.*
- ↳ *Esku-hartze komunitarioa inplikatzeko duten gizarte-trebetasunak eta talde-laneko trebetasunak garatzea, partaidetza-, hezkuntza-, jolas- eta sormen-prozesuetan.*

DATAK: abenduak 18, 27, 28 eta 29.

ORDUA: 9:30-14:30. Azken egunean, 10:00-18:00.

LEKUA: Leitzan eta Lekunberrin.

NORK EMANA: Urtxintxa aisialdi eskolak.

IZEN-EMATEA

Postaz:

ssbirurtzun.izabala@gmail.com - prebentzioa@lagagizartezerbitzuak.org

Whatsappez edo telefonoz:

605 466 805 - 681 265 189

Amazabal institutua: tabloieko izen-emate orrian apuntatuz



► TAILER BAKOITZAREN EDUKIAK

- ↪ 1. Modulua: ingurunearen azterketa. Bizi garen mundua.
 - Ikastaroaren aurkezpena. Parte-hartzaileak aurkezteko dinamikak
 - Zein da nire ingurunea?
 - Inguratzen gaituen errealitate lokala eta globala aztertzea.
 - Gazteen parte-hartzea. Kezkak eta beharrak.
- ↪ 2. Modulua: Gazteak - Nerabeak. Gazteen Nortasuna - Parte-hartzea eta gizarte-trebetasunak
 - Nor naiz?
 - Izaki sozial eta kultural berezia.
 - Taldea; definizioa eta ezaugarriak.
 - Norberarekiko, besteekiko eta ingurunearekiko errespetuan egindako lana aitortzea, hezkuntza ona, solidarioa eta irekia transmititzeko modu gisa.
- ↪ 3. Modulua: Teknikak eta Baliabideak: ekintzarako trebetasunak eta gaitasunak eta tresnak garatzea.

Jolasaren, tailerren eta tresna dramatikoaren aukerak esperimendatzen ditugu, balio solidarioak lantzeko edozein hezkuntza-planteamendutan funtsezko aktibitate gisa. Tresna horietatik abiatuta, parte-hartzaileek irudimenaren, fantasiaren eta sormenaren mundu baterako sarbidea izango dute. Mundu horretan, ekintzara eramanez ahal izateko, jolasak eta tailerrak egiteko beren baliabideak sortu ahal izango dituzte.

- ↪ 4. Modulua: Teknikak eta Baliabideak: ekintzarako trebetasunak eta gaitasunak eta tresnak garatzea.

Jolasaren, tailerren eta tresna dramatikoaren aukerak esperimendatzen ditugu, balio solidarioak lantzeko edozein hezkuntza-planteamendutan funtsezko aktibitate gisa. Tresna horietatik abiatuta, parte-hartzaileek irudimenaren, fantasiaren eta sormenaren mundu baterako sarbidea izango dute. Mundu horretan, ekintzara eramanez ahal izateko, jolasak eta tailerrak egiteko beren baliabideak sortu ahal izango dituzte.



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo
Otamendi
Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

LILURAREN KONTRA



Filmaren aurkezpena

'LILURAREN KONTRA' FILM LABURRAREN AURKEZPENA

Ikusi du argia Arantza Santesteban zinemagile eta ikertzaileak ondutako *Liluraren kontra* film laburrak. Arribeko elizan aurkeztu zuten, eta ondoren, proiektuan parte hartu duten pertsonekin hizketaldi labur bat egin zuten. Nafarroako Gobernuaren Landarte programaren barruan egin du lan hori Santestebanek. Profil desberdinak dituzte araitarrak dira protagonistak, eta ibarreko paisaiaren eta araitarren arteko harremana aztertu nahi izan du. Arte garaikidea eta landa-eremua uztartzea du xede Landarte egitasmoak.



TXALDABORROKO GAU ESKORTAN

Ondare Kultur Taldeko kideak planak egin eta egin dabilta azkenaldian. Azken txangoa Astiz herrian dagoen Txaldaborroko gau eskorta ezagutzeko ibilaldia izan zen, azaroaren 21ean. Ondare taldekoek joan zirenei azaldu zieten garai batean artzainek nola babesten zituzten ardiak otsoen erasoetatik. Bestalde, Ondareren lanari esker eta Aranzadi zientzia elkartearen eta Lekunberriko Udalaren lankidetzari esker, datozen hilabeteetan lan teknikoak egingo dituzte Lekunberri sarreran dagoen karobian.

25 URTEZ PARRANDAN

Orain dela 25 urte, hilero bazkari bat egitea pentsatu zuen jubilatutako talde batek, Martina Ansorena buru. Jesusa Altunak jarri zion izena plan horri: Parranda. Geroztik, hilero, laugarren asteazkenean bazkari bat egitea erabaki zuten. Zoritxarrez, talde horretako batzuk jada ez daude gurekin, baina gainerakoek hasierako gogo berari eusten diote. Zorionak 25 urtez parranda egiteagatik!





INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN, TINKO

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen azaroaren 25a. Euskal Herriko Mugimendu Feministak kalera ateratzeko eta plazak hartzeko deia egin zuen, eta gure ibarreko herritarrek ere mobilizazioak egin zituzten, Araitzen eta Lekunberrin. Zehazki, Arribeko Surtidorean elkarretaratzea egiten zuten, eta manifestazio bat Lekunberriko plazatik Larraungo udaltxera. Aurten, ofizialki, bost emakume erail dituzte Euskal Herrian.



DIRU LAGUNTZAK MANKOMUNITATEENTZAT

Hondakinen Urteko Funtsaren bitartez, Nafarroako Gobernuak 23.817 euroko diru laguntza onartu du Mendialdea Mankomunitatearentzat, eta 11.006 eurokoa Araxes Garaiko Mankomunitatearentzat. 2021ean hondakinen kudeaketa hobetzeko egin diren ekintzak finantzatzeko erabili ahal izango da. Urtean zehar poltsa horretan biltzen den dirua entitateei itzultzen zaie, hondakinen kudeaketa hobetzeko egin dituzten ekintzen arabera, baita kudeaketa sistemaren ondorioz lortutako hondakinen murriztapenaren arabera ere.

PLAZAOLA-DIGITALEKO BIDE BERDEA

Aurrerantzean, Plazaolako bide berdea modu digitalean ere bisitatzeko aukera izango da. Izan ere, Google Street View-n eta Google Arts and Culture-n bisita daiteke. Bisitariari aukera ematen dio naturgune hori modu birtualean zeharkatzeko, eta, horrez gain, berritasun gisa, trenbide zaharraren historia eta igarotzen zituen paisaiak ere ezagutu ditzake, online erakusten bidez.




Ateak itxi ditu Arotz Eneak

Kutxa Fundazioak erabaki du Etxarriko Arotz Enearen jarduera amaitzea, 60 urte eta gero. Bertan bizi izan direnek eta lan egin dutenek penaz hartu dute erabakia, eta uste dute etxeak ez zuela merezi modu horretan ixtea. Izan ere, pandemiaren eraginez egonaldiak bertan behera utzi baino lehen, agenda bete-betea zuten, ordura arte bezalaxe. Fundazioak ez du esan zer asmo duen aurrerantzean.

16

Etxarrin dago Arotz Enea etxea. Arg: Labrit.



Euskal Herriko eta batez ere Gipuzkoako milaka herritarrek gogoan iltzatuta izango dituzte segur aski gaztetan Arotz Enea barnetegian emandako egunak. Horietako batzuk eskolaren bidez joango ziren hara akaso, ikasturtean zehar, bi edo hiru egun pasatzera, irakasleekin eta ikas-kideekin batera; eta beste batzuk, berriz, uda sasoiari ailegatuko ziren Etxarrira, udalekuetara, lagun berriak egiteko asmoz.

Kisketaz itxi ditu ateak Arotz Eneak. Ez du orain arteko jarduerarekin segituko behintzat, hala erabaki baitu Kutxa Fundazioak. Urriaren hondarrean egin zuen publiko erabakia fundazioak, eta jakinarazi zuen Donostian dagoen Eureka zientzia museoa eta Hernaniko Ekogunea ere itxi egingo dituela. Adierazi zuenez, "eraldaketa prozesu sakon batKaixo Anelean" hasiko dira aurki. Emandako datuen arabera, fundazioak 20 milioi euroko aurrekontua du urte bakoitzean bideratzeko.

Penaz hartu dute notizia Arotz Enean bizi, hazi eta hezi direnek, baita bertan lan egin dutenek ere. Etxarriko aterpean bizi izandakoa eta lan egindakoa da Lasarte familia. Etxearen zaindari izan dira 1960az geroztik, 2001. urtean Maritxu Arangoak, amak, erretiroa hartu zuen arte. Urte horietan, bertan aritu dira lanean semeak, alaba, senarra, koinata... eta azken urtetan baita iloba bat ere. Ongi baino hobeki ezagutzen dituzte Arotz Eneako zirrikituak, izan dituen aldaketak, gorabeherak... guztiaren testigu izan baitira.

Ezkerrean, Maritxu Arangoa, etxe barruan. Arg: Maritxu Arangoa.



60ko hamarkadan hasi zen guztia, Donostiako Udalak Arotz Enea erosi zuenean. Udalekuak antolatzen hasi zen, eta Juanjo Lasarteren gurasoak etxearen zaindari izateko kontratatu zituzten, eta hara joan ziren bizitzera, Juanjok urtebete zuenean. Hark azaldu duenez, falangeko gazte batzuk ere joaten ziren hara udaberrian hasierako urte haietan egun batzuk igarotzera. 1975 inguruan, Donostiako Udal aurrezki kutxak Arotz Enea erosi zion Donostiako Udalari.

Herritarrak Arotz Enean

1960tik 1980ra nahiko modu bertsuan funtzionatu zuen Arotz Eneak. Mutilek eta neskek bereizita egiten zituzten egonaldiak, eta burdinazko ohatzetan egiten zuten lo. 1980an, eraberritze lanak egin zituzten: 72 haurrentzako beharrea, 84rentzako ohatzeak jarri zituzten, egurrezko literetan, eta talde mistoak osatzen hasi ziren. Egonaldiak uda partean bakarrik izaten ziren, ekainaren 1etik iraila bukaera arte, eta hemezortzi egunekoak ziren. Sei begirale egoten ziren, hiru neska eta hiru mutil, eta beste izen bat zuen kanpaldiak: "Colonias Nuestra Señora del Coro" esaten zioten.

Juanjo akordatzen da 8 urte zituztean udalekuetan zeuden haurrekin jolasten zela, eta askotan haiekin bazkaldu ere egiten zuela jantokian: "Beti egiten nituen lagunak", esan du. Etxarriko jendearekin ere harreman oso estua zuten ordu hartan; herriko haurrak barnetegira joaten ziren han zeudenekin jolastera, udan ige-

Herriko haurrak ere igerilekuan bainatzen ziren udan. Arg: Maritxu Arangoa.



rilekuan bainatzera, herriko festetan bazkariak antolatzen zituzten Arotz Eneako frontoian, pilota partidak... herritar guztien topagune zen. Maritxu, gainera, oso ongi moldatzen zen udalekuak kudeatzen zituztenekin.

Udaleku izatetik, ingurumen eskola izatera

1993an, Arotz Enea ikasturtean zehar ere atea irekitzen hasi zen. Pauma elkarteak hezkuntza programa bat abiatu zuen, eta ingurumen eskola bilakatu zen barnetegia. Orduz geroztik, irailtik ekainera Paumakoek egiten zituzten jarduerak eskoletatik heldu ziren haurrekin, eta udan, berriz, udalekuak antolatzen ziren, aurretik egiten zen bezalaxe. Horrela jardun dute 2019. urtera arte, pandemiaren ondorioz egonaldiak bertan behera utzi zituzten arte. Proposa-

men berritzailea zen Paumarena, eta arrakasta handia izan zuen.

Juana Hernandorena aldaketa hori gertatu baina lehenago hasi zen aurrenekoz Arotz Enean lanean, 1987ko udan. Kontatu du Maritxuk tarteka hots egiten ziola lanera joateko, festa bereziak eta egiten zituztenean. "1999an hasi nintzen modu jarraian lanean. Urte bat geroago, Maritxu erretiroa hartzekotan zegoen, eta ni sukaldean has nendin nahi zuen. Orduan hasi nitzen aurrenekoz lanean Anarekin".

Juanjo Lasarteren bikotekidea da Ana Garcia. Lekunberrira ailegatu zenean, ez zekien Arotz Enea zer zen ere, eta azkenean, Juanjoren bitartez, barnetegia ezagutu eta bertan lan egiten ere hasi zen, sukaldean. Juanjok mantentze lanak egiten zituen, Ana bera kozinatzen aritzen zen, eta semeak ere bertan ibiltzen ziren:



Juana Hernandezena, Ana Garcia eta Juanjo Lasarte. Arg: Labrit.

“Gure seme bat jaiota zegoen jada, eta haurdun nengoan, bigarrenaren zain. Kutxako arduradunak esan zigun gure haurrek bertako instalazioak erabil zitzaketela, eta Juanjoren gurasoak oporretara joaten zirenean, gu geratzeko etxea zaintzen. Aitonamonak bizi ziren Arotz Enean, eta gu Lekunberrira jaisten ginen lo egitera, baina gure semeak han hazi eta hezi dira”.

Bai Juanak eta bai Anak oso oroitzen onak dituzte urte haietatik: “Oso familiarra zen dena, oso ongi moldatzen ginen. Ikusi besterik ez dago gaur egun ere gure artean dugun harremana. Lan egiten genuen, eta nik oso argi nuen nire lanpostua zela, baina, aldi berean, elkarrekin bizi eta harremantzeko toki bat ere

bazen”, azaldu du Juanak. Anak ere irribarretsu hitz egin du aro hartaz: “Maritxu ama baten modukoa zen denentzat. Udako arduradunek bi hilabete eta erdi ematen zituzten handik ia atera ere egin gabe, eta Maritxuk gutuziak egiten zizkien: postreak, piper beteak... Gure seme Xabierrek urtebetetze festak hango monitoreekin ospatu izan zituen!”.

Maritxuren erretiroa eta pandemia

Dena zeharo aldatu zen Maritxuk erretiroa hartu zuenean, 2001eko urte zahar gauean. Bai senarrak eta bai berak ordura arte beren bizitoki izandakoa utzi behar izan zuten. Gogorra izan zen 40 urtez zaindutako etxe hura agurtu behar izatea. Fundazioko arduradunak esan zien aurrerantzean inor ez zela zaindari lanetan arituko, eta alarmak eta kamerak jarri zituzten Arotz Enea babesteko. Etxeak Etxarriko herritarrekin zuen harremana ere guztiz aldatu zen: ez ziren instalazioetara sartzen, segurtasun kontuengatik, eta eremua itxita egoten zen haiantzat, baita asteburuetan ere. Aldaketa zorrotzak egin zituzten.

2001etik 2019ra gauzak asko aldatu ziren, baina ez zioten lan egiteari utzi, eta, Anak esan duenez, otsailean izen emateko epea ireki eta segituan betetzen zuten agenda ikasturte osorako. Urte oparoak bizitu ditu Arotz Eneak, 2019. urteko pandemia

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

German Lasarte
ARBEONDO HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



Dena zeharo aldatu zen Maritxuk erretiroa hartu zuenean; bai senarrak eta bai berak ordura arte beren bizitoki izandakoa utzi behar izan zuten.

ailegatu zen arte. "Momentu bate-tik bestera ehunetik zerora pasatzea bezala izan zen. Juana eta biok sukaldean geunden, Aste Santua baino astebete lehenago, eta agenda gainezka genuen. Arduradun bat etorri zen guregana, eta esan zigun Kutxa Fundazioak erabaki zuela hurrengo astean haurrik ez hartzea. Ordubete geroago, Eusko Jaurlaritzak esan zuen eskolak bertan behera geratuko zirela. Han zeuden umeak autobuse-ra igo, eta etxera itzuli ziren bazkaldu ondoren", azaldu du Anak.

Hasieran aste batzuetako kontua izango zela uste zuten, askok bezala, eta etxea garbitzen eta desinfektatzen aritu ziren langileak. Aste Santuaren ondoren haurrak joaten ez zirela ikusita, janaria elikagai bankura eraman zuten. Itxaronaldia nahiko itogarria izan zela diote langileek, eta azkenean fundazioak kolaborazio lan batzuk egiteko proposatu zieten, etxetik. Udan esan zieten hurrengo ikasturtean ere ez zirela kanpaldiak egingo, eta geroztik, administrazio lanetan aritu dira fundazioarentzat, aurtengo irailera arte. Orduan jakinarazi zieten Arotz Enearen jarduna amaituko zela. Bi aukera eman zizkieten langileei: Donostian lan egitea, fundazioaren beste lanpostu batzuetan, edo kaleratuak izatea, kalte-ordain bat jasota. Azken aukera hori aukeratu zuten.

Aro garrantzitsu bat bukatu da Juanjo, Ana eta Juanarentzat. Pena

handia dute horregatik, eta are gehiago amaitu den moduagatik: "Niri pena handia ematen dit horrela bukatu izanak. Gazteak jada etorriko ez balira edo funtzionatuko ez balu, ulertuko nuke bukatu behar izatea, baina ikusita ongi funtzionatzen zuela, pena da", adierazi du Juanjok atsekabetuta. "Hiltzen utzi dute", gehitu du Anak. "Halere, balorazioa orokorrean oso positiboa da", esan du Juanak.



Haur batzuk udalekuetan jolasean. Arg: Maritxu Arangoa.

Ez dakite aurrerantzean zer gertatuko den Arotz Enearekin, Kutxa Fundazioak ez baitu azaldu zer asmo duen. Argi dagoena da bertan hazi eta hezi direnengan behintzat beti egongo dela bizirik.



Baldintzarik gabeko maitasuna

Izenburua idatzi dudan momentuan, hitz handitan sartzen ari nizenaren kontzientzia sentitu dut. Azken garaiko ikaskuntza argi eta sakon bat izan da baldintzarik gabeko maitasuna badela eta hori praktikan nola jarri. Erich From-en liburu batean irakurri nuen aurrena, maitasun mota ezberdinak zeudela, bi nagusi hauek ezberdindu: matriarkala - nik maite zaitut baldintza guztien gainetik - eta patriarkala - nik maite zaitut nik esaten dizudana egiten baduzu. Bizi garen gizarte patriarkatuaren ezaugarria da bigarren maitasun mota hau, maitatua izateko aberatsa, ederra, azkarra, etab...

Ondorioz, ohikoa da ez nahiko sentitzea, ez maitatua, baztertua, ez egokia... Aldiz, garai batetako gizarteak maitasun matriarkalean oinarrituak omen zeuden, tribukoa izateagatik bakarrik maitatua zinen, igual zion tamainak, arrazak... Ama lurra denak hartzen gaitu bere baitan eta denontzako ematen ditu fruituak. Konfiantza horretatik, bakoitzak ahal duena egiten du eta denon artean hitz egiten dugu zer doan ongi, zer gaizki...

Oso orokorra da aipatu dudana, baina niri lagundu zidan ohartzeko zeinen baldintzatua den nire maitasuna, bestearekiko eta nire buruarekiko. Hori da gertuen dudana maitasuna garatzeko, nire lehen ardura. Besteak diren bezala onartzeak, nire burua den bezala onartzea eta maitasun guztiarekin aurrera egitea da praktikan jarri nahi dudana. Erraza da esatea. Gozoa bedi bititzea, besarkada bana!

Erosi Lekunberrin sariak irabazteko



Lekunberri Mugimenduan izeneko merkataritza eta ostalaritza elkarteak zozketa oso berezi bat jarri du martxan Eguberriei begira. Hain zuzen, bi sari emango dituzte, eta sari bakoitzak herriko denda eta ostatuetan produktuak erosteko eta zerbitzuak jasotzeko bonuak biltzen ditu. Zozketan parte hartzeko, establezimendu horietan egindako erosketen bidez, papertxo bat bete beharko da, eta hor bertan egongo den kutxatxo batean sartu. Zozketa urtarilaren 6an egingo dute, 13:00etan, frontoiko plazan.

Egitasmo horren helburua da elkarteko kideek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta produktuak ezagutaraztea, horietan kontsumitzen duten bezeroei fideltasuna eskertzea, bezero berriak erakartzea eta bertako kontsumoa sustatzea. Gainera, elkartekoen iritziz, horrek guztiak Lekunberriko parte direla sentiarazten die herritarrei, eta kontzientzia zabaltzeko ere balio du, bertakoa kontsumitzea ezinbestekoa baita establezimenduek irekita eta lanean jarrai dezaten.

1. SARIA

Peluqueria Ana: Moztu eta orraztu + manikura. **Goxo Goxo:** 25 euroko bonua. **Aurrera:** Bi lagunentzako 50 euroko afaria. **Clinica Iortia:** Hortz garbiketa. **Aliprox:** 30 euroko bonua + ogi bat egunero 2022ko urtarilean. **Urzubi:** %15eko deskontua etxeko tresnetan. **Lanbroa:** 30 euroko bonua + 2022ko agenda. **Bikain:** Esnekiak. **Artxueta:** 30 euroko bonua. **Begoña janaridenda:** 30 euroko bonua. **Kantina:** Bi lagunentzako bazkaria. **Centro civico San Juan:** 30 euroko bonua. **Talleres Larraun:** 50 euroko bonua. **Alimentacion Idoia:** 25 euroko bonua. **Arbeondo:** 30 euroko lotea. **Albi taberna:** Bi lagunentzako afaria. **Ogiberri:** 50 euroko bonua. **Arkupe:** 30 euroko bonua. **Hotel Ayestaran:** Bi lagunentzako afaria. **Ayerdi/Oreja fisioterapia:** Sesio bat. **Urrutia haragitegia:** 30 euroko bonua. **Sojo Natura:** Produktu lote bat.

2. SARIA

Belen arraindegia: %25eko deskontua. **Goxo Goxo:** 25 euroko bonua. **Euskalduna:** Bi lagunentzako afaria, 50 eurokoa. **Clinica Iortia:** Hortz garbiketa. **Urzubi:** %15eko deskontua etxeko tresnetan. **Estetica Edurne:** Aurpegi garbiketa. **Artxueta:** 30 euroko bonua. **Begoña janaridenda:** 30 euroko bonua. **Lekuonberri:** Asteburuko bi menu. **Ainhoa taberna:** Gourmet saskia. **Clinica veterinaria:** 50 euroko bonua. **Amairu taberna:** Lau pizza. **Arbeondo:** 30 euroko lotea. **Ilargi taberna:** 25 euroko bonua. **Galburu:** 30 euroko bonua eta pasta kaxa bat. **Arkupe:** 30 euroko bonua. **Hotel Ayestaran:** Bi lagunentzako afaria. **Sojo Natura:** Produktu lote bat. **Urrutia haragitegia:** 30 euroko bonua. **Inishouse:** 5 orduko bonua ingelesez hitz egiteko.

Iraungitze data: maiatzak 10.

NAFARROA

Saioa Alkaiza txapeldun Nafarroako Bertsolari Txapelketan



Azaroko azken asteburuan egin zuten Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, eta finalean zegoen emakumezko bakarrak jantzi zuen txapela: Saioa Alkaiza Guallarrek. Alkaizaren lehen finala zen, gainera. Estitxu Arozena Albizuk jantzi zion txapela irabazleari; hain zuzen, Arozenak duela 26 urte Bertsolari Txapelketa bat irabazi zuen lehen bertsolari emakume izan zen. Eneko Lazkoz Martinezekin jokatu zuen buruz burukoa Alkaizak, eta Julio Soto buruz burukoaren atarian geratu zen, hirugarren postua lortu baitzuen, saio



bikaina egin eta gero. Oro har, bertsolariak saio dotorea eskaini zieten kiroldegira gerturatu ziren 1.750 herritarrei, eta giro aparta izan zen. Honela gelditu zen sailkapena: Saioa Alkaiza (995 puntu), Eneko Lazkoz (992 puntu), Julio Soto (627,5 puntu), Joanes Illarregi (596 puntu), Xabier Silveira (592,5 puntu), Xabat Illarregi (582,5 puntu), Josu Sanjurjo (580,5 puntu) eta Eneko Fernandez (573 puntu).

Txapela jantzi ondoren, honela kantatu zuen azken agurra Alkaizak, bazterretara keinu eginez:

*"Besarkada bat langile auzoetako aldera
erdaldunen seme-alabok hor ikasi dugu euskera
eta mundu bat da jaso duguna horrekin batera
euskerak behar du ofiziala, Lesakatik Cascantera
eta orain musu handi bat iraultza den gorputzera
ez-bitarra, queer-a, transa, marika eta bollera
mundua ederragoa da hurbilduz baztertera"*

21

MAILOPEKO BAZKIDEA
IZAN NAHI DUZU?
mailope@labrit.net

Errotaldea 19,
Lekunberri
www.marillotxiki.com
679 938 016

MARTILLO TXIKI
PERFUSIO ESKOLA

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

ekin
rotulación

948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Gamendia 629 350 099
Arbe-Atallu



Larraungo Itzulia, denek gozatzeko

Ttutturre kirol elkarteak eta Larraun Bizik Larraungo Itzulia izeneko ibilbidea abiatu zuten udaberrian, eta abenduaren 12an emango diote amaiera, Gorritin hasi eta Errazkinen bukatuko duten azken etaparekin. Proposamen horren helburua da ibarretako herriak lotzen dituzten bide tradizionalak ezagutaraztea eta herritarrek horiekin gozatzea. Hain zuzen, ibilbidea bost etapatan banatzen da, eta etapa bakoitza 15-20 km artekoa da. Kirol elkarteak txangoak antolatu ditu ibilbideak erakusteko, eta elkarteko kideen asmoa da aurrerantzean herritarrak etapa horiek beren kabuz egitera animatzea. Horretarako, informazio guztia beren webgunean bildu dute: ibilbideak, desnibelak, trackak, argazkiak... Beraz, nahi duenak eskuragarri dauka txangoez gozatzeko behar duen guztia <https://larraun.info/ttutturre/> helbidean.

22

Elkartasun saskia, Larraungo Pilota Elkartearen eskutik

laz egin bezala, aurtan ere Larraungo Pilota Elkartek erabaki du Eguberrietan zozketatzea bertako saltoki eta ekoizleen produktuekin osatutako saski eder bat. Izan ere, zozketa horren helburua da inguruko komertzioari eta ostalaritzari laguntzea. Artxueta harategian dago ikusgai saskia, eta zozketan parte hartzeko papertxoak ere harategian bertan eskura daitezke. Abenduaren 23ra arteko epea jarri dute parte hartu ahal izateko, eta abenduaren 24an egingo dute zozketa; zozketa bidez grabatuko dute, eta Facebooken jarriko, irabazlea nor den jakinarazteko. Aprobetxatu eta erosi zozketan parte hartzeko txartela!



Beti Kozkorrek zozketak egingo ditu hilero

Beti Kozkorrek hainbat zozketa egingo ditu heldu diren hilabeteetan taldeko bazkideen artean. Urrian eman zioten hasiera egitasmo horri, eta, printzipioz, denboraldi osoan egingo dira hileroko zozketa horiek. Hilabete bakoitzaren amaieran egingo dute, azken asteburuan, eta sorpresa ugari dauzkate prest zozketatzeko. Urriko zozketan, Igor de Castro izan zen sariduna, eta Beti Kozkor taldearen beroki bat irabazi zuen. Azaroan, berriz, Burgui-Miravalles familiak Arkupe dendan erosteko 50 euroko bonu bat irabazi zuen. Egon hadi hurrengo zozketei!



Lekunberriko frontoia, eraberrituta



Azken hilabeteotan Lekunberriko frontoia eraberritzeko lanetan aritu dira. Aldagelak berriro dituzte, suteen prebentziora egokitu, hormak margotu eta zorua leundu dute, baita goiko sarea jarri ere. Azken pausoa sarrerako ate nagusia jartzea izango da. Horrez gain, beste berrikuntza garrantzitsu baten berri ere eman du Lekunberriko Udalak: erabilera publikorako kanpoaldeko sarrera duen bainugela bat egongo da, denentzat irekia.

'Bideak' dokumentala emango dute Gabarin

Ttutturre kirol elkarteak antolatuta, Xabier Unanuak zuzendutako *Bideak* dokumentala emango dute Gabarin abenduaren 18an, 19:00etan. Dokumentalaz gain, ipuina ere aurkeztuko dute. Aritz Ganboa de Miguel da gidoilaria, baita protagonista ere. Honela dio aurkezpenean: "Jabetzen al gara naturaz, paisaiaz, mendi, larre zein basoez edo gure landa eremuak eskaintzen duen aisiaz gozatzeko (kirolaren bidetik adibidez) ditugun beharrez? Jabetzen al gara gure inguruneak eskaintzen dituen ahalmen edo gaitasun guztiez?".



Atakama basamortua

A zer jertse politak biolin izena duen dendan negu honetarako! Hara! Antzekoak eta merkexeagoak atera dituzte ondokoan. Agian biak erosiko, desberdinak dira eta!

Eta udaberriaren berdin. Eta udan. Eta udazkenean. Berrerabilitzea hiztegitik kendu dugu, antza. Hala ere, merke erostea, garesti ateratzen da azkenean, arropak ez dutelako behar beste denbora irauten. Txileko iparraldeko Atakama basamortua fast-fashion arropa (ia) gehien biltzen dituen parajea bihurtu da, ba!

Ziur? Adi. AEBn, Europan eta Asian erosi, erabili eta botatzen den arroparen zabortegi klandestinoa bihurtu da eta gutxienez, 39 mila tona arropa dago basamortu honetan ezkutatuta. Moda azkarraren produkzioa inoiz baino altuagoa da eta erritmoak gaur egungoa izaten jarraitzen badu, egoerak okerrera egingen du. Are gehiago kontuan hartzen badugu arropak, gutxi gorabehera, 200 urte behar dituela desagertzeko eta tarre horretan toxikoak diren partikulak askatzen dituela bai airera, eta baita lurrera ere. Eta ez bakarrik AtakaMan, horren urrun gelditzen zaigun basamortu horretan. Jakina da arropa industriak oso prozesu kutsakorrek erabiltzen dituela eta litroka ur behar dituztela praka batzuk, kamisetak edo jertseak produzitzeko. Nazio Batuen Erakundeak 2019an egindako ikerlan baten arabera, arropa produkzioa bikoiztu egin zen 2000. urtetik 2014. urtera bitarte.



Bukatu dira aurtengo herrietako festak!

Azaroaren 11n da San Martin eguna, eta gure inguruko bi herritan ospatzen dituzte jaiak egun horren bueltan: Gaintzan eta Aldatzen. Gainera, Atallun Araizko Zaporeak feria egin zuten, urtero bezala, eta Mendialdeko azoka ibiltariaren azken parada izan zen, Lekunberrin.



Aldazko erronda. Arg: Argiñe.



Tortilla patata txapelketa, Aldatzen. Arg: Argiñe.



Herri bazkari ederra egin zuten Aldatzen! Arg: Argiñe.





Lekunberriko azoka. Arg: Labrit.



Araizko Zaporeak feria. Arg: Labrit.

M. Angeles Urrizalki
iragarkiak, berriak, eskelak...
Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala
948513056
699179437

Atabal
 okindegia
 Era askotako ogiak eta gozoak
 Etxez etxe banatuko dugu
 Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE HARATEGIA


948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

BERTAKO HARAGIA
 Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
 Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.
 Antigua kalea 7
 31890 BETELU



emozioen munduan

● ● Lorea Zulet (Psikologoa)

Ez negarrik egin

Askotan, besteen tristurak deseroso sentiarazten gaitu, ez dakigulako zein den ondokoei laguntzeko modurik onena. Egoera horiei aurre egiteko, hainbat esaldi automatizatu ditugu: «lasai egon», «ez da hainbesterako», «ez negarrik egin»... Ezagunak egiten zaizkizu, ezta?

Horrek arazo bat dakar. Izan ere, esaldi horiek erabiltzean honako hau eragiten dugu: batetik, emozioak ez ditugu balioztatzen, eta, bestetik, adierazpen emozionala mugatu egiten dugu. Horrek ondorio latzak ekarri ditzake, etxeko txikienei batez ere, heldu bilakatzean ez direlako haien emozioak adierazteko gai izango.

Horregatik, hainbat esaldi proposatzen dizkizut, emozioek gainezka egiten duten momentuetan erabil ditzazun, edozein pertsonarekin edota etxeko txikiak haserretzen direnean:

• *Ikusten dut ez zarela ondo sentitzen. Zergatia esan nahi duzu? Edo kontatu nahi duzu zer gertatzen zaizun?*

Beste pertsonak ikus dezan zu prest zaudela kontatu beharrekoa entzuteko eta emozionalki eusteko.

• *Hemen naukazu behar duzun edozertarako*

Gaizki pasatzen ari garen momentuetan ez zaigu bakarrik sentitzea gustatzen. Askotan, ezin dugu ekidin gainontzekoek gaizki pasatzea, baina saihesten dezakegu horrelako momentuak bakarrik igarotzea.

• *Behar adina egin negar*

Positiboa da emozioak kanporatzea, lasaitzea, angustia hori nolabait askatzea. Garrantzitsua da emozio guztiak balioztatzea, eta ez alaitasuna bakarrik.

• *Ulertzen zaitut*

Batzuetan nahikoa dugu jakitea norbaitek ulertzen gaituela pasatzen ari garen momentu zail horretan. Norbaitek zurekin enpatizatzea, eta sentiaraztea ez zarela hain arraroa horrela sentitzeagatik.

• *Nola lagundu zaitzak?*

Eskaini laguntza beste pertsonari, behar duena eskatzeko aukera izan dezan: besarkada bat, kafe bat, edo plan entretenigarri bat egitea.

• *Entzuten zaitut*

Batzuetan negarra frustrazioaren seinale da pertsonak ez dakienean nola azaldu sentitzen duena edo ez dakienean zer sentitzen ari den ere. Jarri bere neurrira (batez ere umeekin), eta praktikan jarri entzumen aktiboa.

• *Ulertzen dut gaizki sentitzea*

Esaldi horrek gure laguntza nahia eta egoeraren ulermena erakusten du. Batzuetan horrek lagundu dezake ere gertatutakoari hitzak jartzen: «Ulertzen dut haserre egotea espero zenuena gertatu ez delako», «ulertzen dut



frustrazioa sentitzea zure lagunek ez dizutelako jolasten utzi»...

• *Nola uste duzu konpondu daitekeela?*

Arazoaren ordez irtenbidean zentratzeak laguntzen du gertatutakoaren alderdi positiboa ikusten, erlatibizatzerara sentitzen duen ezinegonari garrantzia kendu gabe.

• *Uste dut momentu honetan bakarrik egon nahi duzula; behar banauzu, hemen nago; hitz egiteko prest zaudenean, jakinarazi*

Garrantzitsua da ulertzea modu ezberdin asko daudela emozioak kudeatzeko, guztiak errespetagarriak direla, eta hori aldatzen bada zurekin hitz egin dezakeela nahi duenean.

• *Barkatu*

Guztiok egiten ditugu akatsak, eta egin dezakegun mina konpontzea garrantzitsua da. Are gehiago gurasoak. Positiboa da horiek ere barkamena eskatzea, horregatik ez zara aita edo ama okerragoa edo ahulagoa izango, baizik eta emozionalki aberatsagoa.



**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

▶ aseguruak@aseguruak.eus
▶ 943 65 22 20
▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400
Tolosa



**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📞 616 457 540
✉ construccionesganarbe@gmail.com
📞 636 827 846

“Lekunberrin, industria da enpleguaren oinarria”

Lekunberriko Udalak Lekunberri On izeneko plan estrategikoa abiatu du; horren helburua da bertako langileen baliabideak eta enpresen lehiakortasuna handitzea. Plana herritarrengana hurbiltzeko asmoz, aurkezpen batzuk egin dituzte, eta abendu hasierako osoko bilkuran eman zioten hasiera. Horretarako, parte hartu nahi duten erakunde eta pertsona guztiei bilerara joateko deia egin zieten.

Zer da, zehazki, Lekunberri On plana?

Enplegu eta formakuntzarako plan estrategikoa da. Plan horren bidez, eragile sozioekonomiko anitz eta zabal batekin lan talde bat sortuz, langileen baliabideak eta enpresen lehiakortasuna handitzeko hainbat egitasmo ezarri eta garatuko dira, modu ordenatu eta planifikatu batean.

Zergatik erabaki duzue plan hau martxan jartzea? Zein da oraingo egoera?

Gure ikuspuntutik, Lekunberrin industria da enpleguaren oinarria, eta azken 25 urteetan izan duen garapena abiapuntutzat hartuta, uste dugu badagoela enplegarritasuna hobetzeko aukera, gure herritarrei aukera berriak sortzeko modua en-

presen beharretara egokitzen diren aldi berean formakuntzaren bitartez, eta, beraz, hurbilagoko eta baldintza hobegoko lanpostuak bertatik bertara egokitzeko. Gaur egun, zuzeneko 500 lanpostu inguru ematen ditu Lekunberriko industrialdeak, asko Lekunberri bertakoak, baina baita hainbat eskualdekoak eta beste zona askotarikoak ere. Baina, hala ere, gure herriko langile askok kanpoan lan egiten dute, eta hemen bertan lan egiteko gogoz edota desioan daude; aldi berean, hemengo jendea kontratatu nahi duten enpresak ere badira, baina ez dituzte aurkitzen beren beharretara egokitzen diren profilak. Eragile guztiok uste dugu formakuntza dela bi desio eta beharrak bat egiteko bidea, eta horregatik jarri dugu martxan.

“Lana finkatzea eta aukerak zabaltzea da herriaren ongizatea babestea eta handitzea”

Zer helburu finkatu dituzue?

Bost helburu estrategiko zehaztu dira, eta horiekin harreman zuzena duten beste bost helburu zehatz. Honakoak dira helburu estrategikoak: Lekunberriko industrialdea dinamiko eta lehiakorra izatea erraztea, hurbileko enplegua sustatzea, lankidetzeta-sareak sendotzea, ekintzailetzarako eta berrikuntzarako baldintza egokiak sortzea, eta planaren gobernantza ona ziurtatzea, epe eta modu egokian ezar dadin. Bestalde, hauek dira helburu zehatzak: industrialdeko

enpresen lehiakortasuna bultzatzea, industrialdeko enpresen curriculum-beharrak ezagutzea eta zabaltzea orientazio-zerbitzuaren bidez, enpresen eta enpresen eta ekintzaileen arteko topaketa erraztea eta biztanleria aktiboaren gaitasunak garatzea, landa-ekintzailetzako hub bat sortzea, eta planerako gobernantza-sistema bat ezartzea,





planaren jarraipena eta komunikazioa kontuan hartuta.

Zergatik dira hain garrantzitsuak gaur egun formakuntza eta lana?

Lana, zalantzarik gabe, biztanleria lurraldean finkatzen duena da. Eta formakuntza, berriz, lana lortzeko aukerak handitzen dituena. Lana lurraldean finkatzea eta aukerak handitzea da herria eta herritarren ongizatea babestea eta handitzea, eta landa-eremua bizi-bizi mantentzea. Horregatik, biak ere elkar gurutzatuta izanda, oso garrantzitsuak dira norbanakoaren bizitzarako, eta landa-eremua eta bere egoera sozioekonomikoa osasuntsu mantentzeko.

Halere, ez da Lekunberriko Udalak industriaren garapenaren alde egingen duen lehenengo urratsa, ezta?

Lekunberriko Udalak 25 urte eman ditu behintzat industriaren garapenean, eta azkeneko urte gutxitan eginiko zabalkundeak ehun lanpostu baino gehiago sortzean lagundu du, bertan ezarri diren enpresei esker; azkena, esaterako, aurten izan da, 42.000m² gehituz. Aurrera eramaten ari garen ekimenei esker, oraindik ere aukera gehiago sortzeko potentzialtasuna ematen dio.

Despopulazioari aurre egiteko modu bat da?

Zalantzarik gabe. Lana izatea eta lan aukera berriak sortzea ezinbestekoa da despopulazioari aurre egiteko; izan ere, horrela, enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen da, baita langileei formakuntza egokitua eskaini ere. Oinarri hori izanda, beste egitasmo batzuk gehitu behar dira, etxebizitza duinerako baldintzak sortuz, zerbitzuak eskainiz, aisialdi, kultur eta kirol agenda oparo bat lan-

duz... eta hainbat eta hainbat gehigarri landa eremuko ongizatearen helburu horretan.

Besteak beste, enpresa sorkuntzarako hub bat sortuko duzue. Zertan datza?

Hub edo *coworking* laborategia da plan estrategiko honen bitartez garatu nahiko genukeen ideia edo proiektua. Ekintzaile, autonomo edota negozio ideia sortzaileentzako gunea, industrialdeari bideratua, non lan espazio bat izan, beste erabiltzaileekin espazioa, ideiak, beharrak eta sinergiak partekatu, eta, azken finean, norbanakoaren lana garatzeko gunea izan dadila, industriaren-entzako zerbitzu atxiki bezala.

Nolako harrera izan du orain arte herritarren artean?

Oso harrera ona. Herritarrok ere kontziente gara industriak Lekunberri duen garrantziaz, gaur egun dituen lanpostu guztiengatik eta aukera berriak sortzeko potentzialtasunagatik. Udaletik hori balioan jartzen dugula ikustea, ez garela daukagunarekin konformatzen, eta hobetu nahi dugula gure herritarrengan pentsatuta eta horrelako ekimenak proposatuz, bultzatuz eta lideratuz, berri on baten moduan ikusten da.

Babes zabala izan du, eta oso harrera ona. Udal bezala ere zoriondu digute horrelako egitasmoak bultzatzeagatik. Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Enpresen Garapeneko Saila, Nafar Lan Sare, Nasuvinsa, Cerderna, Industrialdeko enpresen ordezkari zabala, NUP, FP-ko Zuzendaritza Nagusia, Sakanako Garapen Agentzia, Dinabide, bertako enpresa txiki eta autonomoak, eskualdeko Udalen ordezkariak... bertaratu ziren, eta parte hartzeko borondate argia aurkeztu zuten.

“Lan aukerak sortzea ezinbestekoa da despopulazioari aurre egiteko”

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOAN, MILAKA OPARI ESKURAGARRI

Urteko garai hau seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute, beste urte batez, Euskal Herriko udal eta mankomunitatetako ehun Euskara Zerbitzuz baino gehiagok. Aurtengoa 23. edizioa da.

KATALOGOEA.EUS web-orriak 8.000 produkturen erreferentziak jasotzen ditu. Web-orria maiz eguneratzen da, dagoeneko milaka produktu ditu, eta bat erosi nahi izanez gero, produktuan klik eginez argialetxeen denda birtualetara sartzeko aukera ematen du. Bai web-orriak zein paperezko edizioak, biek ere itxura berriak estreinatu dituzte, eta jasotzen dituzten produktuak bi atal nagusitan erakusten dituzte: atal bat 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin osatua, eta bestea 12-16 urte bitarteko gazteentzako produktuekin osatua.

Azken nobedadeen berri izan nahi dutenei, KATALOGOEA.EUS web-orriak buletin elektronikora harpidetzeko bidea ere ematen die. Hartara, harpidedunek urtearen buruan 10 buletin jasotzen dituzte, argitaratu berri diren produktuen erreferentziekin.

Argibide gehiago: malores-e@hernani.eus edo euskara1@sakana-mak.eus helbideetara idatziz.



**AURRERA
TABERNA**
ARALAR, 15
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza


**urrutia
enea**
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE 
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN
GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labean egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

▶ AGENDA

ABENDUA

- 10** - Printzan: Heriotza hizketagai hitzaldia, 19:00etan.
-
- 12** - Bertso musikatuak Gabari gune irekian.
-
- 13tik 17ra** - Aldaketa klimatikoari buruzko erakusketa Gabari gune irekian: *Moldaera: klima aldaketaren aurkako beste borroka*.
-
- 17-18** - Despopulazioari buruzko jardunaldiak Gabari gune irekian.
-
- 18** - *Bideak* dokumentalaren proiektzioa Gabari gune irekian, 19:00etan.
-
- 19** - *Minan* liburuaren aurkezpena Gabari gune irekian.
-
- 19** - Printza: xake txapelketa azkarra, 16:00etan.
-
- 23** - Printza: Muxutruk eta txokolatada.
-
- 29** - Ondare Kultur Taldeak egindako lanaren aurkezpena. Gabari gune irekian, 19:00etan.
-
- 30** - Printza: Errotxapeako gaztetxearen hustearekiko elkartasun kontzertua, Pleura eta No te crew taldeak, 19:00etan.

EUSKARAREN EGUNA

- 3** - Mikroipuinen lehiaketaren sari banaketa. Gabarin, 12:00etan.
-
- 10** - Gazteon euskararen eguna. Elektrotzaranga, jokupoteoa, afaria eta karaokea. Larraungo Haziak antolatuta. 18:00etan.
-
- 12** - Soinua, tronpeta, punk! Eneko Lazkoz eta Nerea Elustondo bertsolariekin. Gabarin, 18:00etan.

ARAITZ-BETELUKO KULTURALDIA

- 3** - *Pandemiaren eragina gure haur eta gaztetxoengan* hitzaldia, Nerea Mendizabalen eskutik. Araizko udaletxean, 17:00etan.
-
- 4** - *Euskal Herria. Kultura matrilineala*. Gure aztarnen bila hitzaldia, Mari Carmen Basterretxearen eskutik. Gaintzan, 19:00etan.
-
- 7** - Artitzeko kobazuloa hitzaldia, Aranzadi elkar-tearen eskutik. Araizko udaletxean, 19:00etan.
-
- 7** - Bertso afaria, Aitor Sarriegi eta Oihana Iguaran bertsolariekin. Txartelak ohiko lekuetan salgai. Atallun, 21:00etan.
-
- 10** - *Oskar Estanga, soinu anitzeko kontzertu bidai*a kontzertua. Lezaetako elizan, 20:00etan.
-
- 12** - Araitz-Beteluko eguna. Zumeta oroitzuz. Goiz soinua txistulariekin. Araxes pilota ekolako umeen partidak. Dantzari txikien saioa, taloak, musika goizean...
-
- 17** - G5 teknologiaren inguruko hitzaldia, Asier Arregiren eskutik. Betelun, 19:00etan.
-
- Oharra: kontzertu eta hitzaldietarako zaintza zerbitzua behar izanez gero, whatsapp mezu bat bidali 674 366 920 zenbakira.

**INFORMAZIO GEHIAGO
ESKURATZEKO, SARTU
WEBGUNEETAN**



Larraun.info:



Larraun.eus



▶ MERKATU TXIKIA

ESKAINITZA

- ▶ 118 ale dituen Espasa-Calpe entziklopedia eskaintzen dugu, dohainik. Interesa izanez gero, harremanetan gurekin jarri: 665 211 614.

2022ko

Mailoperen egutegia

Kaixo, irakurle!

Urtea bukatzeaz dagoen honetan, datorren urteko egutegi berezi bat oparitu nahi dizugu hurrengo alearekin batera. Horretarako, ezinbestekoa dugu zure aletxoa; azken finean, denon artean sortzen eta osatzen baitugu Mailope. Irakurleek bidalitako argazkiekin osatu nahi dugu 2022ko Mailoperen egutegia, eta honako gai hau aukeratu dugu hori egiteko: URA.

Bidali gure ibarretan ateratako argazkiak, ura protagonista dutenak edo ura ageri direnak: errekek, askak, ur-jauziak... Nahi duzuen ager daiteke argazkian. Jasotzen ditugun argazkien artean, batzuk aukeratu eta egutegi eder bat osatuko dugu, zuen denon etxetan jar dezazuen.

Abenduaren 26ra arteko epea duzue argazkiak bidaltzeko, helbide honetara: mailope@labrit.net.

Lagun gaitzazu gure ibarren edertasuna erakusten!

